Bergarako Udala

# KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA: C GUTUNAZALEN IREKIERA

| | |
|---|---|
| **Espedientea:** | Espediente zk.a.: 2026KOPR0001<br>Kontratazioaren xedea: Osintxu auzoko Txuringo tabernaren ustiaketa |
| **Eguna:** | 2026/02/10 |
| **Ordua:** | 9:00 |
| **Bertaratuak:** | Presidentea:<br><br>Ainhoa Lete Zabaleta, Bergarako Udaleko Alkatea<br><br>Bokalak:<br><br>Xabin Juaristi Arrieta, Bergarako Udaleko Idazkaria<br>Ainhoa Larrañaga Berriozabal, Bergarako Udaleko Kontu-hartzailea<br>Goretti Andrinua Iraolagoitia, Idazkaritzako AOT<br><br>Idazkaria:<br><br>Aritz Oteiza Lasagabaster, Bergarako udaleko Kontratazio Teknikaria |
| **B gutunazalean sarturiko eskaintzaren balorazioa onartzea** | Adituen batzordeak B gutunazalean sarturiko eskaintza teknikoa baloratu du. Balorazioan Baldintza Administratibo Zehatzen Agirietako balorazio irizpideak hartu ditu kontuan, eta lizitatzaile bakoitzari puntuazio bat eman dio. Puntuazioa ematerako garaian arrazoiak azaleratu ditu txostenean, eta hala izanda, kontratazio mahaiak berau aho batez onartu du.<br><br>Txostenari jarraiki, honakoa izan da emaitza: |

| | **Ustiaketa / *Explotación*** | **Garbiketa / *Limpieza*** | **Auzotarrekin lotura / *Vínculo con* el *barrio*** | **Berdintasuna / *Igualdad*** | **OROTARA / *TOTAL*** |
|---|---|---|---|---|---|
| **A lizitatzailea (Sonia Vasquez)** | 7 | 5 | 7 | 4 | 23 |
| **B lizitatzailea (Mirley Serrano)** | 7 | 0 | 7 | 2 | 16 |

| | |
|---|---|
| **C gutunazala irekitzea** | Gauzak horrela, jarraian “C” gutunazalak ireki dira, honako emaitza honekin:<br><br>• Arelis Sonia Vasques Garcia (58*****C): 160 euro (BEZ gabe)<br>• Mirley Jozuana Serrano Fuentes (60*****A): 200 euro. Ez du |

| | |
|---|---|
| | zehaztu BEZ gabe edo BEZa barne den.<br><br>Hala ere, BEZ gabe izanda ere, A lizitatzaileak 8 puntu lortuko lituzke, eta B lizitatzaileak, 10. |

Hori horrela izanda, honakoa da emaitza:

| | **BALORAZIO SUBJEKTIBOA** | **BALORAZIO OBJEKTIBOA** | **OROTARA** |
|---|---|---|---|
| **A lizitatzailea (Sonia Vasquez)** | 23 | 8 | **31** |
| **B lizitatzailea (Mirley Serrano)** | 16 | 10 | **26** |

| | |
|---|---|
| **Eskaintza onuragarriena** | Ondoren, bertaratutako mahaikideek, aho batez, erabaki dute Osintxu auzoko Txuringo taberna ustiatzeko eskaintza onuragarriena Arelis Sonia Vasques Garcia (58*****C) lizitatzaileak aurkeztu duela aitortzea. Zerbitzua arautzen duten Baldintza Administratibo Zehatzen Agirietako 8. atalak zehaztutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu aipatu lizitatzaileak. |

Bederatziak direnean, lehendakariak amaitutzat eman du irekitze-ekitaldia, eta nik, idazkari lanetan egon naizen honek, hori ziurtatzen dut.

Sinatuta: **PRESIDENTEA** Sinatuta: **IDAZKARIA**